




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

| | |
|-----------------|--|
| SARRERA-ENTRADA |  GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA |
| | 2006 API. 05 ABR. 05 |
| | Zk. / N.º 1552 |
| ESP. EXP. | 07/01/2014 01 |

MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak, ARALAR Taldeko bozeramalea, Batzar Nagusietako araudiari jarraikiz, ERRENTA AITORPENEAN KONTZIENTZIA ERAGOZPEN FISKALA ONARTZEARI buruzko Ez Arauzko Proposamena aurkezten du Fiskalitate Batzordean eztabaidatua izan dadin

ZIOA

Eusko Jaurlaritzak defentsarekin lotutako eskumenik ez duenez, E.A.E.n ez dago diru lerrorik esleituta kontzeptu horrenpean, eta beraz, Estatuaren Aurrekontu Orokorretara jo behar dugu, estatuko gastu militarra zein den ezagutu ostean, E.A.E.k gastu horren zein kopuru finantziatzen duen jakiteko, eta Kupoaren Akordioaren arabera zehaztuta dagoena.

Datu horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak 2005. urtean estatuko gastu militarretara bideratu zen diru kopurua 997,03 milioi eurokoa izan zen. Eta hor ez dago sartuta ez estaduko gastu poliziala ezta hemengo ere.

Beraz, gastu militar soil hori honelaxe laburbil liteke:

-2005. urtean E.A.E.n eguneko 2,73 milioi euro bideratu ziren gastu militarretarako.

-2005. urtean E.A.E.n pertsonako 470 euro bideeratu ziren gastu militarretarako.

Badakigu oraindik foru araudian ez dagoela jasota errenta aitorpenean gastu militarretara bideratzen den kantitatea beste proiektu alternatibo batzuetara bideratzea, hots, bakean oinarritutako gizartea eraikitzen lagunduko duten proiektu sozialetara bideratzea. Baina, pentsatzen dugu badela garaia aukera hau Gipuzkoako foru araudian jasoa izan dadin, errenta aitorpenean gastu militarren aurrean kontzientzi eragozpen fiskala azaltzeko eskubidea aitortuaz eta babestuaz. Era horretara, herritar askoren borondatea eta nahia errespetatuaz. Gainera, honelako aukerak legezkoak izateak Euskal Herriak behar duen bake eta desmilitarizazioaren kultura bultzatu eta lagunduko luke, modu berezian orain irekitzen ari den egoera berrian. Izan ere, guztiz kontraesankorra baita bakearen inguruan hitz egitea eta, aldi berean, indar armatu batzuk finantziatzen jarraitzea.

Gainera, gure gizartean badaude bestelako premia sozialak diru gutxiagoz finantziatzen direnak. Hor dugu, esatebaterako, oinarritzko errenta; 2006. urtean Euskal Autonomi Elkarteak 179 miloi euro bideratuko ditu prestazio sozial hori estaltzeko. Kopuru hori alderatzen badugu 2005. urtean gastu militarretara bideratu ziren 997 miloi horiekin,



GIPIZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPIZKOA

Batzarkide Talde Misto (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

erraz antzeman da zoritxarrez zeintzuk diren batzuen lehentasunak, gure taldeak konpartitzen ez dituenak.

EZ ARAUZKO PROPOSAMENA

- 1.-Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari dei egiten diote errenta aitortpenaren kanpainetan gastu militarren aurrean beren kontzientzi eragozpena adierazten duten herritarren eskariak babestea eta ontzat jotzea.
- 2.-Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru aldundiari dei egiten diote errenta aitortpenaren kanpainetan gastu militarren aurrean beren kontzientzi eragozpena adierazten duten herritarren eskariak kontuan hartuak izan daitezen beharrezkoak diren legezko aldaketak burutu ditzan.
- 3.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek dei egiten diete Gipuzkoako herritarrei errenta aitortpeneko kanpainetan gastu militarren aurrean kontzientzi eragozpen fiskala agertzeko.

Donostian, 2006ko apirilak 5

Rebeka Ubera Aranzeta
ARALAR Batzarkide Taldea